# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

### 1479

AGINDUA, 1996ko martxoaren 14koa, Jaurlaritzaren Lehendakariordearena, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren egitekoak finkatzen dituena, Instituzio-Izaikiak sortzeari eta efektiboak planifikatzeari dagozkienetan.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen otsailaren 28ko 173/1995 Dekretua argitaratu izanaren eraginez, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura finkatzen zuen apirilaren 30eko 286/1991 Dekretua indargabetu egin zen.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura organiko berria sortzeak, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren lehengo egituraren barruan sartzen zen Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritza izena zuen organoa desagertzea ekarri zuen. Zuzendaritza horrek bere egiteko eta eskumen bereziak zituen.

Egiteko horietako batzuk, informazio-sistemei zegozkienak gehienbat, Funtzio Publikorako Sailordetzari eman zitzaizkion 173/1995 Dekretuko 10.3 atalean xedatzen denaren ondorioz. Hala ere, ez da horrela izan antolaketa arloko eskumenei dagokienetan: metodoen eta lan-prozeduren ikerketak egiteari, prozedura manualak lantzeari eta unitate organiko eta administratiboak aldatzeko edo birregituratzeko proposamenei buruzko txostenak emateari dagokienetan hain zuzen. Bestalde, eskumen horien lekukorik ezagunena, egitura organikoari buruzko dekretuen eta hauek garatzeko aginduen proiektuei buruzko arauzko txostenak ematea zen.

Horietaz aparte, hainbat prozedurei buruzko arauzko diktamen edo txostenak lantzeko eskumena eman zitzaion Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzari xedapen ezberdinen bidez. Adibidez, martxoaren 15eko 124/1994 Dekretuaren bidez egin zen hori: Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako karrerako funtzionarioentzako gordeta dauden lanpostuen balorazio-sistema arautzen zen bertan eta, ondorioz, lanpostu horien sailkapena. Beste adibide bat jarriko dugu, Funtzio Publikorako sailburuordeak 1993ko irailaren 29an emandako Erabakia: lanaldia eta normalizatutako soldatak homologatzeko eskabideei izapideak eginarazteko burutu behar den prozedurari buruzko argibideak ematen dira berorretan. Hirugarren adibidea, Administrazio Publikorako sailburuordeak, Funtzio Publikorako sailburuordeak eta Ekonomi eta Aurrekontuen sailburuordeak 1994ko urtarrilaren 14an emandako Erabakia hain zuzen: Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako lanpostuen zerrendak aldatzeko burutu behar diren izapideen prozedurari buruzko argibideak ematen dira berorretan.

# Disposiciones Generales

## VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 1479

ORDEN de 14 de marzo de 1996, del Vicepresidente del Gobierno, por la que se determinan las funciones de la Oficina para la Modernización Administrativa relativas a estructuración interna, creación de Entes Institucionales y planificación de efectivos.

El Decreto 173/1995, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, vino a derogar el Decreto 286/1991, de 30 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

La nueva estructura orgánica del Departamento de Hacienda y Administración Pública supuso, por tanto, la desaparición de la Dirección de Organización y Sistemas, órgano integrado en la antigua estructura del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico con unas funciones y competencias determinadas.

Algunas de estas funciones, básicamente las referidas a los sistemas de información, fueron atribuidas en virtud del artículo 10.3 del citado Decreto 173/1995, de 28 de febrero, a la Viceconsejería de Función Pública. No ha sido así, sin embargo, respecto a las competencias en materia de organización, relativas al estudio de métodos y procedimientos de trabajo, la elaboración de manuales de procedimiento, y la emisión de informes sobre las propuestas de modificación o reestructuración de las unidades orgánicas y administrativas, cuya máxima expresión era el informe preceptivo de los proyectos de Decreto de estructura orgánica y de las Órdenes que los desarrollaran.

Además, diferentes disposiciones atribuían a la mencionada Dirección de Organización y Sistemas las funciones de dictamen o informe preceptivo en determinados procedimientos. Este el caso, por ejemplo, del Decreto 124/1994, de 15 de marzo, por el que se regula el sistema de valoración de puestos de trabajo, y consiguiente clasificación de los mismos, reservados a funcionarios de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, de la Resolución de 29 de septiembre de 1993, del Viceconsejero para la Función Pública, por la que se dictan instrucciones sobre el procedimiento a seguir en la tramitación de solicitudes de homologación a la jornada y retribuciones normalizadas, o de la Resolución de 14 de enero de 1994, de los Viceconsejeros para la Administración Pública, para la Función Pública, y de Economía y Presupuestos, por la que se dictan instrucciones sobre procedimiento a seguir en la tramitación de las modificaciones de las relaciones de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

Ondorioz, apirilaren 30eko 286/1991 Dekretua indargabetu izanaren eraginez, egiteko horiek ezabatuta gelditu ziren. Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko Sailak sortze, ezabatze eta aldatzeari buruzko eta sail horien egitekoak eta egintza-eremuak finkatzeari buruzko urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuko 7.2 atalean xedatzen denaren eraginez, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa sortu zen, honako egiteko hau ematen zitzaiola: barne egiturari, Instituzio-Izaikiak sortzeari edo efektiboak planifikatzeari dagozkienetan sailek gauzatu behar dituzten jardunei buruzko informazioak eskaintzea. Dekretu bereko gehigarrizko xedapenetatik hirugarreneko 2. puntuan, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoan pertsona gutxik egingo zutela lan esaten zen eta, beroien lan-metodoa, proiektu bidezko kudeaketa izango zela finkatzen zen, baina hori arauz ezarriko zenaren kaltetan gabe noski.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikita gelditu zen lehenengotan Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa, geroago, urtarrilaren 23ko 65/1995 Dekretuaren eraginez, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzari atxiki zitzaion. Dekretu honen bidez, Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko Idazkaritza Nagusia sortu zen Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren baitan. Horretaz aparte, adskripzio hori sendetsi egin zen, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartzen deneko urriaren 31ko 463/1995 Dekretuaren bidez. Honek indargabetu egiten du 65/1995 Dekretua. 463/1995 Dekretuko 7. atalean finkatu egiten dira Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren egitekoak, urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuan ematen diren argibideak eta Herri Administrazioa Arrazoizkotzeko eta Hobetzeko Batzordearen txostenean ematen diren aholkuak kontutan hartuta. Aholku horietako d) idazatian, honako hau egiteko hau finkatzen da: «barne egiturari, Instituzio-Izaikiak sortzeari edo efektiboak planifikatzeari dagozkienetan sailek gauzatu behar dituzten jardunei buruzko informazioak eskaintzea,» hain zuzen.

Horri dagozkionetan, gogotan hartu behar da, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren egitekoa dela, Administrazioa eguneratze-lanak bultzatzea eta ezartzea eta ez duela parte hartu behar ohiko kudeaketa administratiboan. Hori horrela izanik, urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuan xedatzen dena kontutan hartuta, bulego horretako langile-taldea murritza da eta, lan metodoa, proiektu bidezko kudeaketa. Ohiko kudeaketa-lanak ez dira bere eginkizunen barruan sartzen.

Informazio mailako eskumenak Administrazioa Eraberritzeko Bulegoari emateak ez du esan nahi, lehengo arauek Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzari ematen zizkioten egiteko guztiak bulego honek bete behar dituenik. Honako hau da egia, hau da, barne egituraketarako, Instituzio-Izaikiak sortzeko edo efektiboak planifikatzeko jardunei buruzko informazioa bakarrik eman behar duela eta, hori, jardun horien izakera kontutan hartuta eta urriaren 31eko 463/1995 Dekretuko 7. atalean xedatzen denaren arabera.

Estas funciones, por tanto, quedaron sin efecto con la derogación del referido Decreto 286/1991, de 30 de abril. Ahora bien, el artículo 7.2 del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, procedió a la creación de la Oficina para la Modernización Administrativa a quien se atribuyó la función de informar sobre las actuaciones departamentales relativas a la estructuración interna, creación de Entes Institucionales o planificación de efectivos, señalando en el punto 2 de su Disposición Adicional Tercera que, sin perjuicio de lo que reglamentariamente se determinara, la Oficina para la Modernización Administrativa estaría integrada por un equipo reducido de personas y que su método de trabajo sería la gestión por proyectos.

La Oficina para la Modernización Administrativa, que, en un principio, quedó adscrita al Departamento de Hacienda y Administración Pública, pasó a depender de la Vicepresidencia del Gobierno en virtud del Decreto 65/1995, de 23 de enero, por el que se crea la Secretaría General de Coordinación y para la Modernización Administrativa en la Vicepresidencia del Gobierno, adscripción que fue ratificada por el Decreto 463/1995, de 31 de octubre, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno, que deroga el anterior. Este último Decreto precisa en su artículo 7 las funciones de la Oficina para la Modernización Administrativa de acuerdo con las orientaciones del Decreto 1/1995, de 3 de enero, y las recomendaciones del Informe de la Comisión de Racionalización y Mejora de la Administración Pública, y entre ellas se incluye en su apartado d) la de «informar sobre las actuaciones departamentales relativas a la estructuración interna, creación de Entes Institucionales o planificación de efectivos».

A este respecto, es preciso recordar que la Oficina para la Modernización Administrativa nació con el objeto de impulsar e implementar la reforma de la Administración no de participar en la gestión administrativa ordinaria. Por esta razón, como recuerda el propio Decreto 1/1995, de 3 de enero, está integrada por un equipo reducido de personas y su método de trabajo es la gestión por proyectos, excluyendo de entre sus funciones las tareas rutinarias de gestión.

El hecho de que a la Oficina para la Modernización Administrativa se le hayan atribuido dichas facultades de informe no implica, sin embargo, que ésta deba ejercer todas aquellas funciones que la normativa anterior atribuía a la desaparecida Dirección de Organización y Sistemas, sino que, por el contrario, sólo deberá informar aquellas actuaciones que, de acuerdo con su naturaleza y de conformidad a lo establecido en el artículo 7 del referido Decreto 463/1995, de 31 de octubre, sean relativas a la estructuración interna, creación de Entes Institucionales o planificación de efectivos.

463/1995 Dekretuko 7. atalean esaten dena garatu beharra dakar horrek, era honetan, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoak informazio-arloan betetzen dituen egintzak zehaztasun handiagoz finkatu ahal izateko. Zehaztasun horiek honako hauei buruz eman behar dira: barne egiturari, Instituzio-Izaikiak sortzeari edo efektiboak planifikatzeari dagozkienetan sailek gauzatu behar dituzten jardunei buruzkoetan hain zuzen. Bestalde, jardun horiek, bulegoaren izakerari eta dituen helburuei egokitu behar zaizkie.

Ondorioz, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartzen deneko urriaren 31ko 463/1995 Dekretuko azken xedapenetatik lehenengoan agintzen denaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartzen deneko urriaren 31ko 463/1995 Dekretuko 7. d) atalean finkatzen den egitekoaz baliatuz, honako arlo hauei buruzko txostenak eman beharko ditu Administrazioa Eraberritzeko Bulegoak:

a) Egitura organikoei buruzko dekretuen proiektuei eta beheragoko maila duten arauei buruzkoak. Dekretuak garatu ohi dituzte arau horiek.

b) Izaiki instituzionalak edo administrazio organoak sortzea ekarri dezaketen xedapen edo hitzarmen proiektuei buruzkoak.

c) Efektiboak planifikatzeko sailek edo erakunde autonomoek landu ditzaten ekimen edo proposamen orokor edo globalei buruzkoak; ekimen horiek, zerbitzuen eta lan unitateen edo lanpostuen zerrenden egituretan aldaketa nabarmenak sor ditzaketen kasuetan.

*2. atala.*– 1.– Aurreko atalean Administrazioa Eraberritzeko Bulegoari izendatu zaizkion egintzen eremutik kanpo gelditzen dira, ondoren aipatzen diren egintzak direla-eta gauzatu daitezen aparteko prozesuak: lanpostuak kentzea edo sortzea, lanpostuak zentru organikoei adskribatzea edo destino-zentruak aldatzea, lanpostuen balorazioa eta sailkapena edo beste edozein egintza berezi; egintza berezi horiek, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioan edo honen Erakunde Autonomoetan lan egiten duten langileen baldintzak arautzen dituen akordioan sartuta egon daitezke edo akordio horretatik kanpo. Prozesu horiek, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuan xedatzen denaren arabera, Funtzio Publikorako Sailordetzako organoei dagozkie.

2.– Hala ere eta esandakoek beren bideari jarrai diezaiotenaren kaltetan gabe, Funtzio Publikorako Zuzendaritzak, jardun berezi horien berri eman beharko dio AdministrazioA Eraberritzeko Bulegoari, zerbitzuen egituran eta lanpostuen unitateetan edo zerrendetan jardun horiek izan dezaketen eragina baloratu ahal izateko.

Lo anterior implica la necesidad de desarrollar las previsiones del artículo 7 del Decreto 463/1995 con el fin de precisar, con mayor concreción, las funciones de informe que ejerce la Oficina para la Modernización Administrativa respecto de las actuaciones departamentales relativas a la estructuración interna, creación de Entes Institucionales o planificación de efectivos, de tal forma que se ajusten a la propia naturaleza y fines con los que aquélla fue creada.

Por todo ello y en virtud de la Disposición Final Primera del Decreto 463/1995, de 31 de octubre, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– En ejercicio de la función prevista en el artículo 7, d) del Decreto 463/1995, de 31 de octubre, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno, la Oficina para la Modernización Administrativa emitirá, con carácter preceptivo, informe sobre:

a) Los proyectos de decretos de estructura orgánica y normas de rango inferior que los desarrollen.

b) Los proyectos de normas o convenios que supongan la creación de Entes Institucionales u órganos administrativos.

c) Iniciativas o propuestas generales o globales de planificación de efectivos que elaboren los departamentos u organismos autónomos, susceptibles de producir cambios significativos en la estructura de los servicios, unidades o relaciones de puestos de trabajo.

*Artículo 2.*– 1.– Quedan excluídos del ámbito de actuación de la Oficina para la Modernización Administrativa previsto en el artículo anterior, los procesos singulares que se lleven a cabo en razón de la amortización o creación de plazas, la modificación de las adscripciones de puestos a centros orgánicos o de sus centros de destino, la valoración y clasificación de puestos de trabajo, o cualquier otra actuación singular, esté o no incluída en el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, que corresponden a los órganos de la Viceconsejería de Función Pública, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 173/1995, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública,

2.– No obstante lo señalado en el apartado anterior y sin perjuicio de que sigan su curso correspondiente, la Dirección de Función Pública comunicará a la Oficina para la Modernización Administrativa dichas actuaciones singulares, a fin de que ésta puede valorar, en su caso, su incidencia en la estructura de los servicios, unidades o relaciones de puestos de trabajo.

3.– Agindu honetako 2.2 atalean aipatzen diren komunikazioak kontutan hartuta eta zerbitzuen egituran eta lanpostuen unitateetan edo zerrendetan aldaketa nabarmenak egon daitezkeenez, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoak jardun bereziei buruzko txostena egiteko erabakia hartzea noizbait gertatuz gero, horren berri eman beharko dio bulego horrek Funtzio Publikorako Zuzendaritzari, komunikazioa eskuratu dadin egunetik hasi eta hiru asteguneko epearen barruan. Ondorioz, prozedura geldiarazi ondoren, 7 asteguneko epearen barruan eman beharko da txostena. Funtzio Publikorako Zuzendaritzara eta dagokion Sailera bidali beharko da txostena.

*3. atala*.– 1. atalean aipatu diren txosten horiek, xedapen eta egintza horiek lantzeari buruz indarrean dauden arauak kontutan hartuta eman beharko dira.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunetik hasita jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko martxoaren 14a.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

3.– Cuando, en base a las comunicaciones a que se hace referencia en el art. 2.2 de esta orden, y por suponer cambios significativos en la estructura de los servicios, unidades o relaciones de puestos de trabajo, la Oficina para la Modernización de la Administración decida, de manera excepcional, realizar un informe sobre las actuaciones singulares, lo comunicará así a la Dirección de Función Pública en el plazo de tres días hábiles a partir de la fecha de la recepción de la comunicación. Suspendido así el procedimiento de que se trate, el informe deberá emitirse en el plazo de 7 días hábiles. El informe se remitirá a la Dirección de Función Pública y al Departamento interesado.

*Artículo 3*.– Los informes previstos en el artículo 1 se emitirán de acuerdo con la normativa vigente para la elaboración de las referidas disposiciones y actos.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 1996.

El Vicepresidente del Gobierno,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA
### *(Osakidetza)*

### 1480

278/1996 ERABAKIA, otsailaren 19koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Rosalba Basurko Celaya andrea, Bizkaiko Osasun Barrutiko Zaldibarko Psikiatri Ospitaleko Erizaintza zuzendariaren kargutik kentzeko dena.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren apirilaren 27ko 635/1992 Erabakiaren bidez deialdi publikoa egin zen Zaldibarko Psikiatri Ospitaleko Erizaintza zuzendariaren lanpostua aukerako izendapenez betetzeko. Horren ostean, Osakidetzako zuzendari nagusiaren 992/1992 Erabakiaren bidez, Rosalba Basurko Celaya andrea Bizkaiko Osasun Barrutiko Zaldibarko Psikiatri Ospitaleko Erizaintza zuzendari izendatu zen.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD
### *(Servicio vasco de salud)*

### 1480

RESOLUCIÓN 278/1996, de 19 de febrero, del Director General del Servicio vasco de salud/Osakidetza, por la que se declara el cese, de Dña. Rosalba Basurko Celaya como Directora de Enfermería del Hospital Psiquiátrico de Zaldibar, Área Sanitaria de Bizkaia.

Mediante Resolución n.º 635/1992, de 27 de abril, del Director General del Servicio vasco de salud/Osakidetza, se anunció convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de Director/a de Enfermería del Hospital Psiquiátrico de Zaldibar. Por Resolución n.º 992/1992, del Director General del Servicio vasco de salud/Osakidetza, se nombró a Dña. Rosalba Basurko Celaya, Directora de Enfermería del Hospital Psiquiátrico de Zaldibar, Área Sanitaria de Bizkaia.